




GOZATU UDAN

irakurtzen eta jolasean



EIBAR

Juan San Martin Liburutegia
Biblioteca Juan San Martín



EIBAR

Euskara

KAIXO, FAMILIA

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Udal Liburutegiak opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko jolasak eta liburu gomendioak proposatzen dizkizuegu.

Opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da.

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!

GOZATU irakurtzen

El Servicio de Euskera y la Biblioteca Municipal Juan San Martín os ofrecemos una selección de juegos y libros en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones. Las vacaciones también son una buena época para ayudar a nuestros hijos e hijas a reforzar el euskera y la lectura mediante la diversión.

¡Las vacaciones son una buena ocasión
para leer y jugar juntos/as!

0-4
urte



Agatha Loth-Ignaciuk; Malgorzata Nowak *Agur, puxika, agur!*

Ekaré, 2024

Gaur goizean, puxika horia hegan atera da, gelatik. Klean gora egin du, auzoan, hirian! Puxikak gero eta urrunago egiten du hegan...



Amaia Telleria; Lorena Martínez Oronoz *Kankailu kontakatiluren izenondo liburua*

Denonartean, 2024

Kankailu Kontakatilu deitzen didate. Zergatik ote? Hitzek mingainean kilimak egiten dizkirate! Nire sekretua kontatuko dizuet liburu honetan.



Caspar Addyman

Haurtxoak barreka eta kukuka!

Ibaizabal, 2024

Haurtxoek barre asko egiten dute kuku jolasean. Nola jolasten den ikasi nahi duzu? Tira egin orrialdeetatik eta bilatu haurra non dagoen.



Chris Haughton

Oso ondo portatuko naiz

NubeOcho, 2025

Simonek munduko txakurrik onena izan nahi du. Oso ondo portatuko da. Bere jabea, Alfonso, enkargu bat egitera irteten denean, Simonek sukaldeko mahaian tarta gozo bat ikusten du, eta zera... Ezin dio gogoari eutsi!



0-4
urte



Miren Amuriza Plaza; Julen Tokero Álvarez
Kukuenea

Elkar, Katxiporreta, 2018

Elenek ume bi zeuzkan, bakarra zeukan Anttonek: familia txiki bi elkartua, hara, handi bat nola osatu duen boskote honek.



Olaia Martínez Altuna
Zerua

Denonartean, 2024

Naturak sortzen dituen emozioak identifikatzeko liburua



Olivier Tallec
Lagun min-min bat

Txalaparta, 2025

Kattagorriak erabaki du lagun min bat behar duela. Lagun min-min bat, dagoen eta hoberena. Baina, zer egin batak elur-malutak erortzen ikustea maite badu, eta besteak erreka ertzean jolastea nahiago badu? Lagun mina nor duen erabaki beharra, bai zaila... Edo ez!



Rosalinde Bonnet
Ospa, txerritxoak!

Ttarttalo, 2024

Otsoa bakarrik bizi da etxe handi batean, basoaren bihotzean. Lasaitasuna maite du. Ordena maite du. Ondo antolatutako egunak maite ditu. Baina, udazkeneko goiz batean, zalaparta jasanezin batek esnatu du otsoa...



5-7
urte



André Carrilho
Beste nonbait dituen neskata

Txalaparta, 2025

Neskata bat hain dabil mugikorrari adi, erreparatu ere ez die egiten bere inguruko gertaera fantastiko batzuei. Hartz lagunkoi batek besarkada bat eman nahi badio ere, neskatak ez dio begirik kenduko ustez tentagarriagoa zaion horri. Harik eta egun batean...



Beatriz Yubero; Amaia Arrieta
Beste egun nekagarri bat

Erein, 2025

Xatur bere lagunekin jolasten denean dena ahazten zaio, beraz ez zaio etxera itzultzea gustatzen, zain izaten duelako han untxi andrea eta erantzuten ez dakien galderak egiten dizkiolako. Ama untxiak errezetak bilatzen ditu Xatur hobeto sentitu dadin.



Colas Gutman; Marc Boutavant
Zakur Ustel eskolara doa

Denonartean, 2025

Zakur Ustel eskolara doa. Lortuko al du gelan ez lokartzea? Jokatu ahal izango du futbolekin, pilotarekin estropezu egin gabe? Irakurtzen ikasiko al du azkenean, zaborretan aurkitzen duenaren etiketak deszifratzeko?



Leo Lionni
Urte osoko ardura

Kalandraka, 2025

Urtarrilaren lehenean, Edur eta Eder sagutxoek lagun berri bat egin dute: Zurtxo arbola hitzuna. Hasierako harridura gaitzuta, urte osoan zehar bisitan joatea erabaki dute.




5-7
urte



Lou Carter; Deborah Allwright *Ipuin honetan ez dago otso gaizto bakar bat ere*

Picarona, 2021

Hiru txerrikumeak purrustaka ari dira, marmarrean, eta amona kezkatuta. Baina nolatan egongo da Otsoa aldi berean bi ipuinetan? Nekatu da Otsoa, ASKI, kitto! Istorio honetan ez da OTSO GAIZTO BAKAR BAT ERE egongo!



Maite Gurrutxaga *Tapakia*

Erein, 2025

Aurreiritziz josita bizi da A. Bere tapaki zuri-zuria puskatu izana leporatu die bizilagun kanpotarraren seme-alabei. G.-k, hauen amak, etxe barrura gonbidatuko du A., tapakia konpontzen duen bitartean itxaron dezan. Pixkanaka A.-k bere susmo txarrak eta errezeloak alboratuko ditu.



Meritxel Martí; Xavier Salomó *Etxe izugarria*

Mezulari, 2024

Etxe izugarri baten bila ari zara? Kanpoaldean trumoiak eta tximistak etengabe erortzen diren bitartean sutondoan lasai eseri eta beldurrezko istorioak irakurtzeko leku aproposaren bila?



Mimatuz; Xabi Etzaniz Ulazia *Hegan egin nahi dut*

Denonartean, 2024

Zergatik ezin dut hegan egin? Amak esaten dit hori ezinezkoa dela, pertsonok ezin dugula hegan egin, ez dugulako hegorik. Baina nik ez diot sinesten...



8-11
urte



Goiatz Labandibar; Mariñe Arbeo *Otsorik gabeko basoa*

Pamiela, 2025

Laida beti beldurtu izan dute otsoek. Gurasoek haiei buruzko beldurrezko istorioak kontatu izan dizkiote ttiki-ttikitatik: Pelloren ardi guztiak jan zituen otso zitalarena, txanogorritxuren amona askaritarako jan zuenarena... Gauza bakarrak lasaitzen du Laida: bere etxe inguruan ez dagoela basorik.



Ibon Martin; Emmanuel Montiel *Txokolatearen misterioa*

Travel Bug, 2024

Zatoz gurekin Baionara txokolatearen jaialdi handia ospatzera. Ba al zenekien hango kalerik zaharrenetan ezer ez diruditen fabrikak ezkututzen direla? Nire lagunak eta ni eguna iristeko irrikitan gaude, baina Dama Ilunak eta bere jarraitzaileek beste plan batzuk dituzte. Ospakizuna arriskuan jarriko duen lapurreta bat egin nahi dute. Azkar mugitu beharko dugu eta gure superbotereak erabili galarazteko.



Iñigo Ibarra; Irati Merino Petralanda *Harrikolore*

Denonartean, 2024

Maddalen, Maitane eta Ziortzak kolore askotako harri distiratsu bat topatuko dute. Gizon eta emakume bat jarraika hasiko zaizkie harribitxia dela-eta. Zergatik? Tartean, Owenek, Britainiatik oporrak pasatzera etorritako bizilagunak lagunduko ditu. Berak ez daki euskaraz. Bretoieraz hitz egiten du. Nola hitz egin harekin? Nola komunikatu?




Julio Santos; Patricia Pérez *Non zaude, Maylin?*

Xarpa Books, 2025

Liburutegian atseden hartzen ari nintzela, makilatxo magikoa erabiltzen ikasteko praktiketan susto ederra hartu ondoren, liburu bat aurkitu nuen. Nire deietako batek eraman ninduen haraino. Ekialdeko magia-liburu liburu bat zen. Barruan, ohar bitxi bat, eskuz idatzita, galdera batekin: Non zaude, Maylin?




8-11
urte



Mikel Valverde
Mendi Beltzeko munstroa
Elkar, 2019

Zoe, neskatilak, eta Zank, bere txakurrak, gure txirrindulariek Euskal Herriko Itzulian bezainbat mendate, muino eta bihurgune gainditu beharko dituzte helmugara iristeko. Abentura itzela!



Nerea Loiola; Iván Landa
Miraren mendekua
Erein, 2024

Noraino eraman gaitzake mendeku goseak? Zilegizkoa da minari minez erantzutea? Gaizki-ulertu bat tarteko, liburu honetako protagonista (irakurlea bera) abentura misteriotsu bezain arriskutsu batean murgilduko da. Aitona, basoa, enigmak eta troll bat.



Nerea Loiola; Iván Landa
Moko Koko eta sekretu sakratua
Erein, 2025

Abentura misteriotsu eta dibertigarri hau argitzeko erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Agian inoizko abenturarik zirraragarriena biziko duzu; edo agian ez, agian amesgaizto hutsa izango da, agian ezingo duzu inoiz etxera itzuli. Ausartuko zara?



Pedro Mañas; David Sierra Listón
Sirenen deia
Travel Bug, 2025

Anna eta haren lagun magikoak ekaitzen itsasargira doaz, ongi merezitako atsedenez gozatzen. Baina atsedeen hartzea ez da erraza Ninorekin, Angelaren anaia txikiarekin, batez ere Ninok hondartzan galdutako neskatila misteriotsu bat ekartzen duenean, hizkuntza arraro batean hizketan... Nondik atera ote da?



+ 12
urte



Antton Kazabon *Zarpiel*

Elkar, 2025


Paul ikastolako musika-irakaslea egun batetik bestera kale kantoi batean lurrean eserita agertuko da, gitarra jo eta kantuan, eskean. Herri txikiko bizilagunak hain zarpail jantzita ikustean, Zarpiel deitzen hasiko dira. Bizirik hilda dagoela ematen du garai bateko maisu bizizale adoretuak.



David Lozano Garbala *Ehizaldia*

Edebé-Giltza, 2025

Sei gazte gonbidatu dituzte VENARiren proba esperimentalean parte hartzera. Errealitate mistoko bideojoko misteriotso bat da, eta inork ez du oraindik haren berririk izan. Joko-eremua zedarritzen duen herri abandonatu batean isolatuta, ehiztari gisa, AA batek sortutako izaki birtual beldurgarriei aurre egin beharko diete.



Jon Arretxe *Lurraren taupadak*

Erein, 2025

Elezaharrez, antzinako borrokez eta naturaren taupada geldiezinez inguratuta hazi da Aturi, aldi berean bizileku eta etsai izan daitekeen oihanean. Txikitatik, bere herriaren, mukaxien, jatorria azaltzen duten istorioak entzun ditu, eta ehizaren, biziraupenaren eta basoko espirituekiko errespetuaren sekretuak ikasi ditu.



Lur Gallastegi *Zurriola Beach Hostel*

Elkar, 2025

Zurriola Beach Hostel ostatua izango da duela mende bateko bi familien bizipenen agertokia eta haien ondorengo gazte batzuen elkarbizitzaren eta ataka zailen eszenatokia. Gerra batek baldintzatu zituen lehenengo bizitzak; hiriaren turistifikazioak eta etxejabeen lukurreriak bigarrenak.



+ 12
urte



Maixa Zugasti *Zozabarrak*

Erein, 2025

Ustekabeko ikasgela-aldaketak hankaz gora jarriko du Juneren bizitza. Indarkeria eta ankerkeria ezagutuko ditu. Eta izua. Udaberrian agertu ziren lehen beldurrak, ahizpa atzerrira joatean. Hala ere, udazkenean, zozabarren etorrerarekin itxiko du haurtzaroko atea betiko.



Marian Porcel *Agur Karibu*

Elkar, 2025

Julen gazteak amama Petraren etxera joateko deia jasoko du, udako oporrak prestatzen ari dela. Amama gaixo dago eta laster hilko da, baina ez dauka heriotzaren zain egoteko inolako asmorik. Geratzen zaion denbora ausardiaz bizi, eta bilobarekin partekatu nahi du. Horregatik, bidaia liluragarri bat egitea proposatuko dio.



Oihan Iriarte Eletxigerra *Autismoa eta biok*

Txalaparta, 2025

Liburu honetako protagonista estralurtar bat bezala sentitu izan da, mundu guztiari elkarrekin jarduteko gida bat eman baliote bezala berari izan ezik. Harik eta autismoa zuela azaldu zioten arte. Orduan hasi zen bere burua eta bere jarrerak ulertzen, eta halaxe azaltzen dizkio irakurleari.



Ramon Olasagasti *Memoriaren giltza*

Erein, 2025

Indio eta Tania sarri ibiltzen dira Ezkaba mendiko baso, bidezidor eta hegietan, zer suma, zokomiran. Arratsalde batean ikusitakoak, ordea, asaldata utzi ditu erabat. Zer dira eskeleto horiek? Zer da gizon-emakume horiek hezurren artetik atera duten botila hori?



komikiak



Karim Ouaffi; Mikankey *Mutila izatea*

Ttartalo, 2025

Masato, Igor, Feti, Antton eta Amets lizeo berberera joaten dira, freskagarriak hartzen dituzte elkarrekin, atrakzio-parkera joaten dira, maitemindu egiten dira... Nor bere modura saiatzen da besteekiko harremanaren eta bere maskulinitatearen inguruko galderei erantzuten.



Mic & Val *Lily eta Dudu-munstroa*

Harriet, 2025

Zer dela eta zer dela... Handia bezain indartsua da, eta ohe azpian ezkututzen da? Zer dela eta zer dela... Tripontzia da, bere inek peste usaina dute, eta ipurdiarekin bihotz itxurako ponpak egiten daki? Lilyren Dudu-munstroa da! Beti ez duzu halako lagun berezirik ezagutuko.



Mizu Sahara *Buztan eta guzti*

Kabe, 2025

Nachi Hiyama, institutuko ikasle arrunta, softballean entrenatzen eta azal beltzaranarekin amesten pasatzen ditu egunak. Halako batean, bere ikaskidea den Utsumiren sekretu batekin topo egingo du: buztan txiki bat du.



Tsukumizu *Girls' last tour*

Kabe, 2023-

Zibilizazioaren gainbeheraren ostean, bakarrik gelditu dira Chito eta Yuri. Nolakoa da haien bizitza beren kettenkrad maitean abandonatutako leku batetik bestera dabiltzala?



JOLASAK

ARRE ARRE MANDAKO

+1 URTE

Altzoan salto eraginez egiten den kanta



ARRE-ARRE MANDAKO.
BIXER TOLOSARAKO
ETZI PANPLONARAKO,
HANDIK ZER EKARRIKO?
ZAPATA TA GERRIKO.
NORENDAKO?
NORENDAKO?
MIKELENDAKO/ GURE
UMETXUENDAKO

Nola jolastu?

Umea altzoan hartuta egiteko jolasa da, kantatu ahala umeari salto eragitekoa; heldu batek (ala ume nagusiago batek) txikia altzoan hartzen du, eta kantatu egiten dio, belaun biak saltoka mugituz. Batzuek altzoan izan beharrean hanka bakarraren gainean ipintzen dute umea, esku bietatik helduta, eta oin bat gora eta behera mugitu

Umeak berak panpin batekin ere egin dezake: berak kantatu, panpina altzoan hartuta edo oinaren gainean jarrita, gora eta behera mugituz.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/arre-mandako>



JOLASAK

AMANDRE GORRINGO

Eguraldia iragartzeko jolasa

+2 URTE



MARIGORRINGO
ZURIGORRINGO,
BIHAR ZER
EGINGO?
EURIA ALA
EGUZKIA
EGINGO?

ZER BEHAR DA?

Amona mantangorri bat. Kartulina edo paper gorriarekin egin dezakete umek, puntu beltzak margotuta.

NOLA JOLASTU?

1- Ume bakoitzak esku gainean papertxo gorri bat jarriko du (amona mantangorri baten itxura baldin badu, hobeto); listu apur batekin itsasi dezakete esku gainera.



2-Kanta kantatuko dute, eta gero putz egingo dute. Papertxoa hegan ateratzen baldin bada, eguzkia egingo duen seinale. Bestela, ba euria dator.

Ume jolas hau benetako amona mantangorriekin egiten da, haiek ustekabea aurkitzean. Ikastetxeetan ez da erraza mantangorriak topatzea eta, gainera, ume hain txikiekin arriskuan egongo litzateke. Horregatik, hobe paperezkoak egitea.

Partaide kopurua gutxienez: 1

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/amandre-gorringo>





JOLASAK

TXAFOS

+5 URTE

Altzoan salto eraginez egiten den kanta

NOLA JOLASTU?

1-Lurrean marrak marraztu: lau marra paralelo. Alde batean bi, elkarrengandik nahiko gertu (2-3 pausora), eta handik 8 pausora beste biak. Umeen adinaren arabera erabaki distantziak.

2-Umeak bi taldetan banatu. Taldekideak aukeratzeko, zotz egin (ikus zotz egiteko kanta-jolasak). Bi taldeek kide kopuru bera izango dute, eta talde bakoitzari jolastokiaren alde bat egokituko zaio (etxe bat). "Epailea" ere izendatu behar da (heldua edo beste ume bat).

3-Aldiko bi jokalarik egingo dute korrika. Txandaka: lehenengo alde batetik eta hurrengoan bestetik. Beste taldeko umeari (bisitariari) abantaila emango zaio korrika hasteko garaian: 2-3 pauso aurrerago egongo da, hanka bigarren marran jarrita duela. "Epaileak" seinalea ematean, korrika hasiko dira biak. Etxekoa bisitaria harrapatzen saiatuko da, hura bere taldekideengana (bere etxera) iritsi aurretik.

4-Etxekoak bisitaria harrapatzen baldin badu, bisitaria jolasetik kanpo geratuko da. Ez badu harrapatzen, etxekoa geratuko da kanpoan. Beste aukera bat (jokalaria gutxi direnerako aproposa): inor ez kanporatzea, eta harrapatutakoa taldez aldatzea (etxez aldatzea).

5-Taldeetako bat jokalaririk gabe geratzean amaituko da jolasa.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txafos>



JOLASAK

+6 URTE

TXINGOAN JOLASEAN


Oin bakar baten gainean saltoka ibiltzea

NOLA JOLASTU?

Txingoka egiten diren bi jolas jaso ditugu. Bietan zenbakiak eta laukiak marrazten dira lurlean, baina jolas bakoitzak bere berezitasunak ditu:

- Harri-harrika: Txingo jolas ezagunena. Objektua -harri txiki bat, normalean-eskuarekin jaurtitzen da lauki barrura: lehenengo 1 zenbakira, gero 2.era, ondoren 3. era... horrela zenbaki guztiak igaro arte. Txingoan joanda batu behar da harritxoa, aldiro-aldiro, eta bidean ezin dira laukietako marraz oinarekin zapaldu. Lurlean marraztutako laukiek gurutze forma hartzen dute, eta gurutzea sortzen den lekuan bi hankak jartzen dira lurlean: lauki bakoitzean oin bat. Buelta emateko lekuan atsedeen-lekua egon daiteke.

ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/harri-harrike-edo-txingoka



- Txingor-gainean edo txindurrika: Objektua -kaxa biribil zapal bat, normalean- 1 zenbakian ipintzen da, eta handik aurrera ostiko txikiak emanez eraman behar da, zenbakiz zenbaki. Kaxa ezin da marren gainean geratu, eta oinarekin ere ezin da marrarik zapaldu. Lurlean marraztutako laukiek ez dute gurutze formarik, eta bukaeran atsedeen-lekua dago, buelta ematen den tokian. Hainbat izen erabiltzen dira txingo jolasak izendatzeko. Deba bailaran txingoka edo txingoan izenez gainera, hauek ere jaso ditugu: Aretxabaletan harri-harrike eta txantxikurke, Elgoibarren txingor-gaiñian (edo txingorriñian), Bergaran txindurrika eta txantxirrika, Eskoriatzan txantxixuske, Antzuolan txintxurruka, Arrasaten losa-losaka eta hanka-koskoka.



ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txingorriñian-edo-txindurrika

Partaide kopurua (gutxienez): 2


TXIRRITX

IPUINAK, PUZZLEAK, MEMORIA JOLASAK...

TXIRRITX KILKERRA

JOLASTU

TXIRRITX



NAHI AL DUZU TXIRRITX KILKERRAREKIN JOLASTU?

Haur hezkuntzako 4-5 urteko Urtxintxa proiektuko joko dibertigarri honetan, Txirritx kilkerra izango da gidari eta gai ugari lantzeko aukera emango du.

Puzzleak, labirintoak, ipuinak, memoria jolasak... modu dibertigarri eta didaktikoan landuko dira.


Webgunean 11 gai topa ditzakezu. Gai hauek, Urtxintxa proiektuan, 4-5 urteko haurrek lantzen dituzten unitateekin lotura dute. Urtxintxa proiektua gelan lantzen dutenek, gai berdinak lantzen direla ikusiko dute. Baino Urtxintxa proiektua lantzen ez dutenek ere ongi pasako dute.

Gai bakoitzean ipuin bat dago eta hau ardatza izanik, ariketa mota desberdinak landuko dira: Labirintoak, puzzleak, memoria jolasak...

ZER NON IKUSI

EUSKARAZKO EDUKIEN BILATZAILEA

Streaming plataformetan euskaraz dauden edukien zerrenda eskaintzen du, zein plataformatan dagoen eta edukiaren informazioarekin. Horretaz gain, zinemetako euskarazko estreinaldien inguruko informazioa ere biltzen du.






Juan San Martin Liburutegia

Tel. 943708437

liburutegia@eibar.eus

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>



Euskara Zerbitzua

Tel. 943708426

euskara@eibar.eus

<https://www.eibar.eus/eu/eibarko-euskara/>



PORTALEA

Bista Eder, 10

20600 Eibar

